

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARMIÑONGO UDALA

Dirulaguntzen 2021eko Plan Estrategikoa onestea

Armiñongo udalbatzak, 2021eko otsailaren 19ko bilkuran, onespena eman dio Dirulaguntzen 2021eko Plan Estrategikoari, eta ALHAOn eta udalaren iragarki taulan argitaratzea erabaki du.

Armiñon, 2021eko urtarrilaren 22a

Alkatea

JUAN MUÑOZ BARTOLOMÉ

DIRULAGUNTZEN 2021eko PLAN ESTRATEGIKOA

I. PRINTZIPIO OROKORRAK ETA HELBURUAK

Armiñongo Udalak, azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 8.1 artikuluan xedatutakoa betez, Dirulaguntzen 2021eko Plan Estrategikoa egin du.

Dokumentu hau udalak emandako dirulaguntzen kudeaketa hobetu eta arrazionalizatzeko onetsi da, jardun lerro bakoitzeko jasotako dirulaguntza bakoitzean adierazitako helburuak lortzeko ere.

Armiñongo Udalean dirulaguntzak emateko, printzipio hauek bete behar dira:

1. Publizitatea eta gardentasuna: dirulaguntzen Plan Estrategiko honetan jasotako dirulaguntzak udal aurrekontuan jaso behar dira, eta interesdunen eskura egon behar dute beti, legeetan aurreikusitako publizitate eta gardentasun neurriei kalterik egin gabe.

2. Lehia, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza: ahal den neurrian, udal honen dirulaguntzak norgehiagoka prozeduraren bidez esleituko dira, hargatik eragotzi gabe dirulaguntza izendun eta zuzeneko beharrezko aurreikuspena, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren 22. artikuluan ezarritakoaren arabera.

3. Eraginkortasuna ezarritako helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitzean eta erabiltzean.

II. XEDAPEN OROKORRAK

Armiñongo Udalak Dirulaguntzen Plan Estrategiko honetan jasotakoarekin bat etorritik ezarri eta emango ditu dirulaguntzak 2021eko ekitaldian.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honetan aurreikusitako dirulaguntzak ezarri eta emateko, ezinbestekoa izango da udal aurrekontuan diru esleipen egokia eta nahikoa egotea.

Dirulaguntza izendunak aurrekontuko dirulaguntzen eranskinean sartu beharko dira, eta norgehiagoka bidezko dirulaguntzak behar bezala deitu eta kasuan kasuko dirulaguntzaren oinarri arautzaileen arabera izapidetuko dira.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honetan jasotako dirulaguntzak ezartzeko, aurrekontu egonkortasuneko helburuak bete beharko dira, eta oinarri arautzaileak helburu horietara egokitu beharko dira.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honek programako izaera dauka eta haren edukiak ez du eskubiderik edo betebeharririk sortzen ez udalarentzat ez hirugarrenentzat; eta hura betetzeko, dirulaguntzak jasotzen dituzten udal aurrekontuak eta dirulaguntza lerroak onetsi behar dira eta kreditu egoki eta nahikoa egon.

III. INDARRALDIA, FINANTZAKETA ETA ORDAINKETA

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honek urtebeteko indarraldia du onesten den aurrekontu ekitaldirako, eta hurrengo urteetan luzatu ahal izango da, betiere ezarritako jardun lerroei eta helburuei eusten bazaie.

Plan Estrategiko honetan jasotako dirulaguntzak aurrekontuko kredituen kontura finantzatu dira. Kreditu horiek baliabide orokorrekin finantzatu dira, eta Armiñongo Udalaren gastuen aurrekontuko IV. eta VII. kapituluetan daude aurreikusita.

Dirulaguntzak aldeztu aurretik ordain daitezke, dagozkien oinarri arautzaileetan eta dirulaguntzak emateko erabakietan aurreikusitako eran.

IV. ONURADUNAK ETA JARDUN LERROAK

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honetako dirulaguntzen onuradun dira izango pertsonak, elkarteak edo entitateak, baldin eta dirulaguntza jasotzen badute onura publikoko edo gizarte intereseko jardura bat edo toki eskumeneko helburu publiko bat sustatzeko helburua duen proiektu, ekintza, jokabide edo egoera bat gauzatzeko.

Dirulaguntzen Plan Estrategiko honetan jasotako jardun lerroen gaiak honako hauek dira:

1. lerroa. Gizarte ongizatea sustatzeko ekintzak.
2. lerroa. Administrazio batzarrek egindako ekintzak.

Jardun lerro horiek Plan Estrategiko honen Eranskinean jasotako dirulaguntzetan garatzen dira, eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeak udalerriri esleitutako eskumenei erantzun behar diete.

V. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Korporazioko Alkateak egingo du adierazitako helburuen lorpenaren jarraipena, jardun lerro bakoitzaren arloetako teknikarien laguntzarekin.

Udaleko Kontuhartzailtza Orokorrari dagokio diruz lagundutako jardueren finantza kontrola egitea. Horretarako, diruz lagundutako zenbatekoen ordainketaren benetako datak aztertuko ditu, espediente bakoitzean aurreikusitako datekin alderatuz, bai eta erabilitako ordainbideak eta onuradun bakoitzari dirulaguntza lortzeko eskatu zitzaizkion baldintzen justifikazio zuzena ere.

Kontuhartzailtza Orokorrak dirulaguntzen fiskalizazioa erraztuko duten justifikazio ereduak egin ahal izango ditu.

Planaren indarraldia amaitzen denean, urtean behin, Alkateak udalaren dirulaguntza ekintza-aren emaitzen laburpen objektibo bat aurkeztuko dio osoko bilkurari. Kontuan hartuko dira planaren betetze-maila, dirulaguntzak ematearen eraginkortasuna eta efizientzia, nahi diren helburuak eta efektiboak lortzeari dagokionez, eta ondorioak, eta hurrengo Dirulaguntzen Plan Estrategikoa egiteko iradokizunak proposatuko dira.

I. ERANSKINA**1. LERROA. GIZARTE ONGIZATEA SUSTATZEKO EKINTZAK.**

Armiñongo Udalak, gizarte ongizatearen esparruan, jaiotzarako laguntzak ematea aurreikusten du. 250 euro aurreikusten du jaiotzen den haur bakoitzeko. Jaiotzak eragindako gastuak ordaintzeko ematen da laguntza hau, hala nola pixoihalak, janaria, higiene produktuak edo arropa, guztiak ere premia larriko elementuak.

Horrekin zera lortu nahi da: familia gazteak Armiñongo udalerrian geratzea, bai eta udalerrikoak ez direnak erakartzea ere, eta horrela gure herria hazten laguntzea landa eremuko despopulazioen aurkako borrokaren bidez.

AZALPENA	AURREKONTU APLIKAZIOA	PROZEDURA	HARTZAILEA	AURREIKUSITAKO ZENBATEKOA	FINANTZAKETA
DIRULAGUNTZA JAIOTZARAKO	230.480.000	NORGEHIAGOKA PROZEDURA	Udalerriko familiak	250,00€	Baliabide propioak

2. LERROA. ADMINISTRAZIO BATZARREK EGINDAKO EKINTZAK.

Bi kontzejuk osatzen dute Armiñongo udalerrria: Armiñon eta Estavillo. Armiñongo Udalak, baliabide eta baliabide faltaren jakitun, laguntza ekonomikoen lerro bat onetsi du herri horietako herritarren bizi baldintzak hobetzea sustatzeko, hori guztia herrien lurralde oreka lortzeko eta auzotarren bitartekaritza sustatze aldera. Horrela, gainera, gizarte kohesioa hobetu nahi da, gizarte desorekak saihestuz, bizikidetzeta eta gizarte eta kultura harmonia sustatzen duten proiektuak finantzatuz eta gai publikoetan parte hartzea sustatuz.

A.) Obretarako eta beste inbertsio batzuetarako dirulaguntzak.

Dirulaguntza lerro honen bidez, kontzejuek sustatutako obrei laguntzen zaie, zerbitzu publikoak hobetzen eta gure bizilagunen bizi kalitatea hobetzen laguntzen baitute.

B.) Gastu arrunta finantzatzeko dirulaguntza.

Armiñongo Udalak administrazio batzarrei dirulaguntzak ematea aurreikusi du, Kontzeju Etxea eta haien titulartasuneko beste higiezin batzuk mantentzeak sortutako gastu arruntaren zati baterako. Higiezin horiek udalaren esku geratuko dira, eta erabili ahal izango ditu, administrazio batzarrei jakinarazi ondoren eta horri buruzko udal ordenantzan araututako baldintzak betez.

AZALPENA	AURREKONTU APLIKAZIOA	PROZEDURA	HARTZAILEA	AURREIKUSITAKO ZENBATEKOA	FINANTZAKETA
DIRULAGUNTZA GASTU ARRUNTERAKO	943.434.001 943.434.002	Zuzena	Armiñongo Administrazio Batzarra Estavilloko Administrazio Batzarra	12.000 € 12.000€	Baliabide propioak
DIRULAGUNTZA OBRETARAKO	943.734.0001 943.734.0002	Zuzena	Armiñongo Administrazio Batzarra Estavilloko Administrazio Batzarra	2.300€ 2.300€	Baliabide propioak